



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
2016/07/11

Bizkaiko Foru Aldundia beharreen dabil daborduko Gipuzkoagaz eta Arabagaz, euskaldunek "hobari berberak" izan daiezan bidesaridun errepide guztietan

Imanol Pradales Bizkaiko Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapeneko Foru Diputatuak gaur goizean Batzarretako taldeei jakinarazi deusenez, Bizkaiko Foru Aldundia beharreen dabil daborduko Gipuzkoako eta Arabako foru erakundeakaz, “akordio” bat lortzeko, Euskadiko herritar guztiek “hobari berberak” izan daiezan Euskadiko bidesaridun errepideetan. Foru Erakundeak “oinarrizko” printzipioa daroa negoziatzino prozesura, “bizkaitar bat arabarra edo gipuzkoarra balitz moduan trataua izan daitela Araban edo Gipuzkoan, eta alderantziz”.

Pradalesek adierazo dauenez, Foru Gobernuak beharreen dabilz daborduko “lau elementutan” oinarrিতuta egongo dan akordioan: hiru lurraldeen arteko trafiko mistoak ezagutzea; joan-etorri horreek eragiten dituen diru-sarrerak zeintzuk diran jakitea; “konpentsazinozko” kostua ezarteko aukerea baloretea; eta, bukatzeko, etorkizuneko tarifakazino sisteman, Gipuzkoan agertu diranen moduko “iruzurreko boltsak” agertu izana saihestea. Diputatuaren berbetan, boltsa horreek, aurreko Foru Gobernuak sistema martxan jarteko izan ebazan “prisen” ondorioa izan dira.

Bizkaiko diputatuak azpimarratu dauenez, herrialde osoarentzat “ona” izango litzateken eredu bakarra, “hasiera-hasierako” negoziatzino prozesuan dago. Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapeneko batzordean egin dauen agerraldian Pradalesek iragarri dauenez, Bizkaiko eta Gipuzkoako ordezkariak joan dan garagarrilaren lean alkartu ziran. Hitzordu horretan, bidesarien gainean berba egiteaz gain, erakundeetako ordezkariak “ekonomiaren garapenagaz, gobernantzagaz edo Smithsonian Folklife Festival izeneko jaialdiagaz” erlazionautako beste gai batzuk be landu ebezan.

Bilera hori, Bizkaiko Foru Aldundiak, Hegoaldeko Saihesbide Metropolitarraren, Artxandako Tunelen eta AP-8 autobidearen erabiltzaile bizkaitarrentzat laguntza “bakarra” martxan jartea iragarri baino zazpi egun lehenago egin zan. Laguntza hori dala eta, “erabiltzaileek gehienez be 30 euro gastauko dabe hilean, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera”, diputatuak gogoratu dauenez.

Pradalesek azaldu dauenez, Aldundia Batzar Nagusien aurrera etorriko da “barrikuntzak” gertetan diranean edo aldean artean akordioa lortzen danean. Une honetan, proiektua azterlan tekniko fasean dago, “trafikoak, kostuak, erlazinoak...” moduko alderdi jakin batzuk zehazteko. Hori dala eta, une honetan egin behar dana “zuhurtziaz jokatzea” da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

BATZARRETAKO TALDEAK

Pradalesen agerraldia EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeen ekimena izan da. Hasiera batean, talde horreek Unai Rementeria Ahaldun Nagusiaren presentzia eskatu eban, Euskadiko Autonomia Erkidegoko bidesarien “bateratzearen” inguruan Bizkaiko Batzar Nagusietan egin ebazan adierazpenak argitzeko.

Euskadi osorako bidesarien gaineko ekimena “berandu” heltzen dan arren, Joseba Gezuraga koalizino abertzaleak batzordean dauen ordezkariak “eskua luzatu deuto” Aldundiko Gobernuari, EH Bilduren esku egoan Gipuzkoako Aldundiak joan dan legealdian proposau ebana eta, zoritxarrez, kontuan hartu ez zana “kopietan” ahalegindu dirala esan ostein. “Errazionaltasunaren aldeko apustua egiteko ordua heldu da”, esan dau, hori, “auzokideen protesten” ostein eta errepedeakaz erlazionautako politikan “errazionaltasuna” sartzera behartu dauen “krisi ekonomiko egoerea” dala eta bideratu dan arren.

Orokorrean, batzarretako oposizinoko taldeek eskaria egin deusie Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapeneko sailari, Bizkaiko Batzar Nagusiek beste lurralde biakaz egiten ari dan negoziazioan “lehenago” parte hartzeko aukerea izan daien. Talde mistoak planteau dauenez, konponbideak “orekatua eta errazionala” izan behar dau, “inor baztertuko ez dauena”, errepede horreetan bizi diran erabiltzaileak “pagano” bihurtu barik. PP taldeak eskaria egin dau, Bizkaian ezarri dan 30 euroko mugea eztabaidau daian eta Estaduko beste alde batzuekaz “alderaketak” egin daitezau, Estaduko beste leku batzuekaz alderatuta Euskadin dagon bidesaridun errepedeen ehunekoa kontuan izanda.

EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek euren aldetik, “zuhurtziaz” behar egiten jarraitu daijala eskatu deusie Aldundiari. Alexia Casteloren eretxiz, akordioa mesedegarria izan beharko litzateke “euskaldun guztiontzat”. Eta Jon Andoni Atutxa jeltzaleak eskaria egin dau “hasten dagon eta konplexua izango dan beharra aurretik epaitu ez daian”. “Behar eta errealdade desbardinatetik gatoz”, esan dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

11/07/2016

La Diputación de Bizkaia trabaja ya con Gipuzkoa y Araba para unificar las bonificaciones en las carreteras de peaje

El Diputado foral de Desarrollo Económico y Territorial de Bizkaia, Imanol Pradales, ha informado esta mañana a los grupos junteros que la Diputación vizcaína está trabajando ya con las instituciones forales de Gipuzkoa y Araba en establecer un “acuerdo” para que la ciudadanía vasca se beneficie de las “mismas bonificaciones” en las carreteras de peaje de Euskadi. En el proceso de negociación, la Institución foral parte de un principio “básico” que es el que “un vizcaíno o vizcaína sea tratada en Alava o Gipuzkoa, como si fuera un alavés o un guipuzcoano, y a la inversa”.

Pradales ha señalado que los Gobiernos forales están trabajando ya en el diseño de un acuerdo fundamentado en “cuatro elementos”: el conocimiento de los tráficos mixtos entre los tres territorios; saber los ingresos que conllevan estos desplazamientos; valorar el establecimiento de un coste “compensatorio”; y, por último, evitar la aparición en el futuro sistema de tarificación de “bolsas de fraude” como las existentes en Gipuzkoa, a consecuencia, según él, de las “prisas” del anterior Ejecutivo foral por arrancar el sistema.

El diputado vizcaíno ha insistido en que el modelo único, que sería “bueno” para el país, está en una fase de negociación “muy inicial”. En su comparecencia en la comisión de Desarrollo Económico y Territorial de la Cámara vizcaína, Pradales ha informado de que representantes de Bizkaia y Gipuzkoa se reunieron el pasado 1 de junio. En esta cita, además de hablar de peajes, los responsables institucionales trataron otras cuestiones relacionadas con el “desarrollo económico, la gobernanza o el Smithsonian Folklife Festival”.

Esta reunión se produjo siete días antes de que la Diputación anunciara la puesta en marcha de una ayuda “única” para los usuarios vizcaínos de la Variante Sur Metropolitana, los Túneles de Artxanda y la AP-8, “con un límite de gasto mensual de 30 euros, a partir del 1 de enero de 2017”, ha recordado.

Pradales ha señalado también que la Diputación comparecerá en las Juntas Generales en cuanto se produzcan “novedades” o se llegue a un acuerdo entre las partes. En estos momentos, el proyecto se encuentra en fase de estudio técnico para determinar aspectos de “tráficos, costes, relaciones...”, por lo que toca ahora “ser prudentes”.

GRUPOS JUNTEROS

La comparecencia de Pradales se ha producido por iniciativa de los grupos junteros de EH Bildu y Podemos Bizkaia, que inicialmente habían solicitado la presencia del



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Diputado General Unai Rementeria, para que aclarase en Juntas Generales de Bizkaia unas declaraciones suyas en torno a la “unificación” de los peajes de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Pese a que la iniciativa sobre los peajes en el conjunto de Euskadi, llega “tarde”, el representante de la coalición abertzale en la comisión Joseba Gezuraga, ha “tendido la mano” al Gobierno de la Diputación, después de lamentar que traten de “copiar” ahora lo que propuso el Ejecutivo guipuzcoano de EH Bildu en la pasada legislatura y que no fue tenido en cuenta. “Ya es hora de que se apueste por la racionalidad”, ha dicho, a pesar de que esto se produzca por las "protestas vecinales" y por la "situación de crisis económica" que ha obligado a introducir “racionalidad” en la política viaria.

En general, los grupos junteros de la oposición han pedido al departamento foral de Desarrollo Económico y Territorial que las Juntas Generales de Bizkaia puedan participar “antes” de que se produzca la negociación con los otros dos territorios. El grupo Mixto ha planteado que la solución sea "equilibrada y racional", y "que no discrimine a nadie", sin convertir a los usuarios cautivos en "paganos". El PP ha emplazado a que sea objeto de debate el límite de 30 euros fijado en Bizkaia y que se hagan análisis "comparativos" con otras zonas del Estado, teniendo en cuenta el porcentaje de carreteras de peaje existente en Euskadi en relación con otros lugares.

Por su parte, PNV y PSE-EE han animado a la Diputación a trabajar con “prudencia”. La socialista Alexia Castelo cree que el acuerdo debería ser beneficioso "para todos los vascos". Y el jeltzale Jon Andoni Atutxa ha pedido "que no se prejuzgue un trabajo que está empezando y que será complejo". “Venimos de necesidades y realidades distintas” ha advertido.